

Resurreccion Maria Azkueren musika artxiboa

(Resurreccion Maria de Azkue's musical archive)

Altuna, Nere; Arana, Kristina; Gartzia, Pruden;
Olabarria, Josune
Euskaltzaindia. Azkue Biblioteka. Plaza Barria, 15. 48005 Bilbo

Jaso: 06.12.18

Onartu: 07.06.18

BIBLID [1137-4470 (2007), 15; 73-115]

Artikulu honetan zerrendatzen dira Resurreccion Maria Azkueren artxiboa gordezen diren musika lanak, Azkuek berak konposatuak edo harmonizatuak, edota euskal kantutegiarekin zerikusirik dutenak. Zerrenda lau multzotan banatu da, hurrenez hurren, Musika erlijiosoa, Musika profanoa, Euskal kanta harmonizatuak eta Euskal kantutegia (kanta harmonizatu gabeak). Artxiboa bera Azkue Bibliotekan zaintzen da, hots, Euskaltzaindiaren bibliotekan, haren Bilboko egoitzan. Zerrendaz gain Azkueren bizitza eta lanei buruzko hitzaurre bat dago.

Giltza-Hitzak: Resurreccion Maria Azkue. Musika. Folklore. Euskal Herria. Bibliografia.

En este artículo se incluye una lista de las obras musicales recogidas en el archivo de Resurrección María Azkue, compuestas o armonizadas por ella o relacionadas con el cancionero vasco. La lista se encuentra dividida en cuatro grupos: música religiosa, música profana, canciones vascas armonizadas y cancionero vasco (canciones sin armonizar). El archivo se encuentra en la Biblioteca Azkue de Euskaltzaindia, en Bilbao. Además de la mencionada lista, también incluye un prólogo sobre la vida y el trabajo de Azkue.

Palabras Clave: Resurrección María Azkue. Música. Folklore. Euskal Herria. Bibliografía.

Est include dans cet article une liste des œuvres musicales recueillies dans les archives de Resurrección María Azkue, composées ou harmonisées par elle ou se rapportant au chansonnier basque. La liste se trouve divisée en quatre groupes: musique religieuse, musique profane, chansons basques harmonisées et chansonnier basque (chansons non harmonisées). Les archives se trouvent à la Bibliothèque Azkue d'Euskaltzaindia, à Bilbao. En plus de la liste mentionnée, on y trouve également un prologue sur la vie et le travail de Azkue.

Mots Clés: Resurreccion Maria Azkue. Musique. Folklore. Euskal Herria. Bibliographie.

Resurreccion Maria Azkue (Lekeitio, 1864 - Bilbo, 1951) Euskal Herrian sortu den intelektualik interesgarrienetako da¹. Apaiza, kazetaria, idazlea, hizkuntzalaria, folklorista... eta, ororen buru, musikazalea eta musikaria. Gaztetan zuztarreraino engaiatua politikan eta gizarte-ekintzan, urteen poderioz bere ahalegina kulturaren esparrura eta ikerketa zientifikora mugatu zuen, zahartzaroan euskaltzale apolitikoaren irudi paradigmatikoa osatu arte. Bere ibilbide musical zapuztuak izan zuen eraginik traiektoria horretan.

Ez da erraza Azkueren bizitza laburbiltzea. Arrunki, ez zaigu agertzen musikari bezala, hizkuntzalari gisa baizik. Lehen euskaltzainburu izateak, eta hil arterainoko izateak gainera, dudarik gabe haren irudia ildo horretan finkatu du. Liburu honetan omentzen dugun Jose Antonio Arana Martixa izan da topiko horren kontra gehien borrokatu dena, Lekeitioko abade polifazetiko haren irudi osoago bat eskainiz hari dedikatu dizkion lanetan eta, bereziki, haren musikazaletasuna azpimarratuz. Baina iruditzen zaigu Jose Antonioren ahalegin borondatetsua gora-behera, espezialisten zirkuluetatik kanpora inor gutxik ikusten duela Azkue musikari bezala; inor gutxik daki, gaur egun, Azkuek euskarazko bi opera oso idatzi eta Bilbon estreinatu zituela; inor gutxik daki, beste adibide erraz bat jartzearen, Azkue Jesus Guridi eta Jose Maria Usanditzagaren maisu eta bideratzaile izan zela. Eta abar. Bada hor Musika ikerleek oraingoz gutxi ustiatu duten harrobi bat, historialariek are eta gutxiago.

Azkueren aroa nazionalismoaren aroa da Europan, hainbat nazio handi zein txikiren berpizkunde nazionalaren aroa. Eta, ezaguna denez, musikak eta musikariekin lehen-lehen mailako papera jokatu zuten mugimendu horretan. Jakina, musikarekin batera, literatura, eta horrekin batera, sasoi horretan horrenbeste ugaldu ziren mota guztietako ikerketa folklorikoak eta antropologikoak, herriaren hizkuntza, ohitura, kantu, dantza, ipuin edo legendak bildu eta ezagutaratzeko asmoz eginak. Mugimendu kultural luze, zabal eta sakon baten aroa da, baina ez dugu ahaztu behar mugimendu horrek, era berean, osagai politiko nabarmen bat zeukala.

Zeren, oinarrian, sasoi horretan sortzen ari den masa-gizarte berria dugu, Azkue bezalako intelektualek antolatu eta mobilizatu nahi duten nazioaren gorputz politikoa. Helburu horren amodioz sortuko dituzte masa-kazetaritza

1. Azkueri buruzko biografia klasikoa: ARANA MARTIXA, J.A. *Resurrección María de Azkue*, Bilbao: Caja de Ahorros Vizcaína, 1983. Hortaz gain, egile berberak hainbat ikerketa eta artikulu dedikatu dizkio. Bestalde, Jurgi Kintanak laster argitaratuko du Azkueri dedikatu dion doktorego tesi; horren aurrerpen batek Mikel Zarate saria lortu zuen (2001) eta honela argitaratu zen: KINTANA, J. *Vizcaytik Bizkaira?: R.M. Azkue Euskaltzaindia sortu aitzin (1888-1919)*, Bilbao: Euskaltzaindia: Bilbao Bizkaia Kutxa, 2002. Musikari dagokionez, ez dugu ikusterik izan María Mercedes García Pérez doktorego tesi: *Catalogación y análisis de la producción musical de Resurrección María de Azkue y Aberasturi* (Euskal Herriko Unibertsitatea, 1996). Iku gainera ondoko ikerlan argitaragabea: *Los cantineros vascos: contexto simbólico y de representación en la tradición oral vasca* (Santurtzi, 1998. Jesus Gangoiti Barrera fundazioak babestutako lana). Orobata, Xabier Etxeberria Adrien-en ondoko ikerlan argitaragabea: *El cantinero popular vasco de R. M. Azkue: estudio de su contexto y contenido* (1993). Erreferentzia bibliografiko gehiagotarako, iku Azkue Bibliotekaren katalogoa.

berria edo, beste adibide bat jartzearen, musikaz gozatzeko modu berriak: antzokiak, abesbatzak... Lehenago elite mehar baten mugetan garatzen ziren goi mailako musika jardunak eta ekitaldiak publiko gero eta zabalago batera hedatuko dira. Testuinguru honetan politika ere ez da izango elite txiki baten kontua, herritar guztienetan baizik, sasoi honetan antolatzen ari diren lehen masa-alderdien bidez. Euskal Herria ez dago europar mailako mugimendu horretatik aparte, bereziki egundoko indarra hartzen ari zen Bilbo, euskaldunen metropoli berria. Azkue gaztea lerro guztietan arituko da, hizkuntza bera ikertuz (*Euskal Izkindea*, 1891), hura ikasteko metodoak prestatuz (*Método práctico para aprender el euskera bizkaino y gipuzkoano*, 1896), nobelak idatziz (*Behin da betiko*, 1893), lehen ikastola eratuz (*Ikastetxe izenekoa*, 1896an), kultur elkartea bat antolatuz (*Euskaldun Biltokia*, 1896), euskarazko kazeta modernoak sortuz (*Euskalzale*, 1897-1899, *Ibaizabal*, 1902-1903) edo konpromezu politiko zuzenak hartuz Sabino Aranaren eta Ramon de la Sotaren alderdi sortu berriarekin (Aranarekin eta haren jarraitzaile ortodoxoekin harreman gorabeheratsuak izan bazituen ere).

Baina bere ahaleginik handienak, dudarik gabe, musikari dedikatu zizkion, beharbada Musikan ikusten zuelako Azkue gazteak Euskal Herriaren berpizkundea. Edo barru-barruko bokazio baten eraginez, baliteke. Honegatik edo hargatik, kontua da bera dela lehen euskal zarzuelak idazten dituena, alegia, Bilboko publiko burges eta urbano berriarentzat egindako musika modernoa, euskaraz: *Vizcaytik Bizkaira* (1895), *Colonia inglesa* (1896), *Pasa de Chimbos* (1898) edo *Sasi-eskola* (1898) (kontuz! gaztelaniazko izenburua izan arren, testu batzuk behintzat euskaraz daude!). Edo *Euskerazko ereziak*, bi serietan banatuak, *elizarakoak* eta *gizarterakoak*, biak 1897-99 bitartean argitaratuak aurrekoen asmo berdinekin, hots, euskal musika gizarte hiritar berrian popularizatzea. Dudarik gabe, aktibismo musical horrek zerikusirik dauka sasoi honetan Azkuek argi eta garbi aitorzten duen bokazio abertzalearekin. Irakur, adibidez, *La música popular baskongada* izeneko hitzaldia, 1901eko otsailean Bilboko Centro Vasco-n (hots, EAJren egoitzan) eman zuena, zeinetan argi eta garbi salatu ondoren hainbat intelektualek euskal musikari dioten mespretxua (“confieso que aun no hace un año oí de labios más autorizados que los míos, que la música baskongada no existe”²), euskal berpizkunde baterako aldarria jaurtitzen duen: “Conozcamos nuestra verdadera música popular, no la fingida, y sabremos amar á nuestro pueblo”³.

Musikaren ikuskera nazionalistaren sustraia urrundik zetorren eta ez da, inola ere, Euskal Herriaren berezitasuna: ezaguna da Chopinek polonia-rrrentzat duen esanahi politikoa; edo Verdiren *Nabucco* estrainaldia Milanen (1842) ekitaldi politiko gisa nabarmendu zela, Italiaren pizkunde abertzalearen baitan (nork ez du zirrararik sentitzen, gaur egun ere, *Va pensiero* entzutean, hots, askatasunaren egarri den herri zapalduaren deitore luzea?);

2. *La música popular baskongada*, conferencia dada en los salones de la Sociedad “Centro Vasco” el día 15 de febrero de 1901 por Resurrección María de Azkue; con 14 ejemplos armonizados por él mismo, Bilbao: Imprenta y Litografía de Gregorio Astoreca, 1901, 5. or.

3. Ibidem.

Alemaniak ere Italiaren ondoren lortu zuen bere batasun nazionala, eta giro horretan sortu eta loratu zen Wagnerren (1813-1883) musika, hasi *Tannhäuser-ekin* (1845) eta buka *Parsifal-ekin* (1882). Baino ez nazio handiak bakarrik: Smetana (1824-1884) Txekian (*Ma Vlast*, hau da, *Nire Aberria!*)⁴ edo Grieg (1843-1907) Norvegian⁵, adibide onak dira haztatzeko musikariekin jokatzen zuten paper politiko-kulturala, berpizkunde abertzaleen ildotik. Guztiek dira nahitaezko erreferentziak Azkueren figura kokatzeko orduan. Izan ere, Azkuek, ororen buru, musikaritzat zeukan bere burua. Baino musika Euskal Herriaren berpizkundearen zerbitzura jarri nahi izan zuen, gorago aipatu ditugun maisu handi horien ildotik. Horregatik ekin zion, besteak beste, euskalazko operak konposatzeari, Wagnerrek edo Smetanak zein bere herrian eta hizkuntzan egiten zuten bezala. Edo, sasoi berean, Fallak gaztelaniaz eta espainiar nazionalismo nabarmen baten baitan⁶.

Baina, musikari gisa, Azkuek porrot egin zuen. Jose Antonio Aranak azpimarratu duen bezala, “1909tik 1914era doa euskal operaren bost urtetako loraldi harrigarria”⁷; Usanditzaga eta Guridiren arrakastek animaturik, Azkuek ere opera bat estreinatzen du Bilbon: *Ortzuri* (1911), publikoaren arreta beroa lortu zuena. Pozez gainezka, opera berri bati ekin zion, dirudienez bere musika-karreraren behin betiko konsagrazioa izatea espero zuena: *Urlo* (1914). Tamalez, ez zuen arrakastarik izan eta Azkuek berak bere poltsikotik jarria zuen dirutza handi bat galdu zuen. Desesperaturik, jesuita sartzea pentsatu zuen (ziur aski gero misiotara jotzeko), baina Loiolara bidean Zumaian geldialditxoa egin zuen Txomin Agirre lagunaren etxearen, eta honek adoretu zuen Bilbora itzuli eta porrotari aurpegia emateko. Hortik aurrera musikari bokazioari uko eginez, euskal gaietako ikerketei dedikatu zizkion ahalegin guztiek, bereziki hizkuntzalaritzaren esparruan, baina baita folkloreat ere, euskal musikaren historian garrantzi itzela duten ikerlanak argitaratuz (*Euskal kantutegia*, bi bildumatan emana: *armonizatua* (1919-1922) eta *eskuzkoa* (1922-1925) eta *Euskal Herriaren Yakintza* (1935-1947)).

4. “In 1872, Smetana began to think of composing a series of symphonic poems that would best describe several aspects of his beloved Bohemia and its people, their history, their myths and their vision of independence as a nation. He was very determined to do so as he composed the first four in a period of less than a year, (between 1874 to 1875). Each of the six symphonic poems is a complete work that can be played separately, but the entire cycle is so organized and well planned that they can also be played in a continuous sequence, as a monumental single work in six huge movements, entitled *Má Vlast*. (http://members.tripod.com/~Nash_K/mycountry.html)

5. Entziklopedia Britanikoan irakukurtzen dugu: “[Grieg] was a founder of the Norwegian nationalist school of music” eta, aurrerago: “Rooted in the national folk tradition of Norway, Grieg’s music is noted...”. Hori da, dudarik gabe, Azkuek bere buruarentzat eta musikarentzat amestu zuen definizioa.

6. Falla espainiar nazionalistatzat jotzea oso gauza arrunta da, adibidez, Entziklopedia Britanikoan: “The best results of Spanish operatic nationalism ... are two very different operas by Manuel de Falla: the specifically Andalusian *La vida breve* (1913) ... and the one-act *El retablo de Maese Pedro* (1923)” (in *Musical Forms and Genres. Opera. Spain*).

7. ARANA MARTIXA, J.A. *Resurreccion Maria Azkue (1864-1951)*, Gasteiz: Eusko Jaurlaritza, 1993, 17. or.

Azkue 1951n hil zen, frankismorik gorrienean. Ordurako oso zaharra zen eta osasuna ezezik, animoa ere nahikoa makalduta zeukan. Bere irudi publiko apolitikoari esker eta Bilboko oligarka-familien artean zituen hainbat lagun boteretsuren laguntzaz (bereziki Urkixotarrak) lortu zuen Euskaltzaindia erabateko hondamenditik salbatzea: faxistek ez zuten formalki desegin. Baino bera hil ondoren ere urte dezentetan luzatu zen hibernazio-aldi luze hartan Erriberako egoitza zaharra, euskaltzaleen azken portua, ez zen baldintzarik one-netan zaintzeko modurik izan. Azkuek bere ondasun guztiak Euskaltzaindiari utzi zizkion, alegia, bere ondasun nagusia zen biblioteka eta artxiboa Erriberan geratu ziren eta 1978tik aurrera Jose Antonio Arana arduratu zen haien zaintzen. Handik urte batuetara, 1991an, Euskaltzaindiaren egoitza berria Plaza Barrian inauguratu zen eta geroztik hantxe dago Azkue Biblioteca, ikerle guztientzat zabalik.

Resurreccion Maria Azkue beraren artxiboaren jatorrizko antolakuntza Jose Antonio Aranari zor diogu; geroago, 2002an, osorik katalogatu zen eta 2006an dokumentu guztiak digitalizatzeari ekin zaio. Espero izatekoa da laster katalogoa internet bidez egongo dela eskuragarri, eta dokumentuen kopia digitalak ere eskari erraz baten bidez kontsultatu ahal izango direla.



Salamancako Seminarioko Abesbatza eta Orkestra. Azkue zuzendaria eskuinean zutik agertzen da.

Iturria: Arana-Martija, J.A.; Resurreccion Maria Azkue. Bilbo: Caja de Ahorros Vizcaína, 1983. Euskaltzaindia ABA-ABI-68.

* * *

Esan dugunez, Azkuek gai asko landu zituen bere bizitzan eta, beraz, musikazko lanak artxiboaren zati bat baino ez dute osatzen. Zati esanguratsua, dudarik gabe, baina orain arte ikerleek gutxi erabili dutena. Beraz, omenaldi honetarako interesgarria iruditu zaigu Azkuek konposatu edo harmonizatutako musikazko dokumentu eta dosier guztiak zerrendatzea eta hemen eskaintza. Baita euskal kantutegiarekin lotutakoak ere, horietako askok berak ez harmonizatu arren harreman zuzena baitute musikarekin.

Beraz, ondoko zerrendako erreferentziak honela irakurri behar dira: lehenengo eta behirin, kokapenari buruzko kodea, adibidez, ABA-RMA-014-0026-002, zeina honela irakurri behar den: Azkue Bibliotekako Artxiboa, Resurrecion Maria Azkue ondarea, 14. kutxa, 26. dosierra, 2. dokumentua. Kode horren azpian dokumentuaren data (edo datak) jarri ditugu: sarritan nahikoa lausoak dira, baina ezinbesteko iruditu zaigu gutxienezko erreferentzia bat ipintzea. Ondoren, letrakera beltzez, dokumentuaren izenburua, literalki transkribatua, eta ondoko lerroetan haren neurri eta ezaugarriei buruzko ohar labur batzuk. Kasuren batzutan, letrakera txikiagoz, erreferentzia bibliografiko bat gehitu diogu, dena delako dokumentua gutxi gora-behera argitaratuto lan bati dagokionean, baina erreferentzia horiek ez dira exhaustiboak eta, bestetik, irakurleak kontuan har bezta artxibo materialaz ari garela eta, beraz, sarritan ez dela guztiz bat etorriko argitaratutakoarekin.

Zerrenda lau multzotan banatu da, hurrenez hurren, *Musika erlijiosoa*, *Musika profanoa*, *Euskal kanta harmonizatuak* eta *Euskal kantutegia* (kanta harmonizatu gabeak). Multzo bakotza ordenatzeko funtsean irizpide kronologikoa erabili da. Dena den, hainbat kasutan irizpide hori ez da zurrun aplikatu, salbuespenak salbuespen gai berberari buruzko dokumentu guztiak elkarren segidan eman nahi izan dugulako. Halaber, kontuan har bedi artxiboa aurkitu eta katalogatu dugun unitate dokumentual bakoitzari fitxa bat esleitu diogula, sarritan unitate horien artean harreman handia dagoen arren; baina artxiboa aurkitu dugun eran katalogatu dugu, bere sasoian Azkuek berak bereizita gordeko dokumentuak elkarrengana bildu gabe. Horrek batzuetan alferrikako errepikapenaren itxura eman badezake ere (adibidez, *Urlo-rekin*), nahiago izan dugu Azkueren ordenamenduari fidelki jarraitzea.

Halaber, Azkuek argitaratutako zenbait musika lanei buruzko berririk ez dago artxiboa (adibidez, *Pasa de chimbos zarzuelari buruz*). Beraz, irakurlea ez bedi harritu horrelako hutsuneekin: artxibo da deskribatzen ari garena, ez Azkueren musika produkzio osoa.

Bukatzeko, euskal kantutegiarekin lotutako dokumentuek arazo bereziak paratzen dituzte: ugariak dira eta, sarritan, itxura batera oso berdintsuak. Honetan ere irakurleak gogoratu beharko luke artxibo bati buruz ari garela: dokumentu horien beraien artean eta haien bertsio argitaratuen artean egon daitezkeen desberdintasunak ikertzea da, hain zuzen ere, edozein ikerleren eginkizuna.

Edonola ere, ikerleak badaki eskari xume baten bidez horietako edozein erraz eskuratuko duela etxelean, formato digitalean.

1. MUSIKA ERLIJIOSOA

1. ABA-RMA-013-0009-000
1884-05-07
Acordemos nuestras liras
4 orr. ; 31 x 22 cm
R. M. Azkueren lehenengo musika-konposizioa organo eta ahotsetarako, Juan R. Zenarrutzabeitiari eskainia.
2. ABA-RMA-013-0010-000
1884-05-31
Adoremos a Jesus Sacramentado
1 or. ; 18 x 26 cm
Organo eta ahotsetarako musika-konposizioaren zirriborroa.
3. ABA-RMA-014-0026-001
1885-1887
Miserere
16 orr. ; 22 x 32 cm
Salamancan egindako piano eta tenor-ahotsetarako musika-konposizioa.
4. ABA-RMA-014-0026-002
1888-03-30
Miserere
13 orr. ; 22 x 31 cm
Salamancan egindako piano eta tenor-ahotsetarako musika-konposizioaren aldaera.
5. ABA-RMA-014-0026-003
1891-03-08
Miserere
3, 3 orr. ; 21 x 31 cm
Bajo eta tenor-ahotsetarako musika-konposizioa, Salamancan egindakoaren aldaera.
6. ABA-RMA-016-0001-000
1885-1888
Credo. Sanctus
2-7 or. ; 22 x 31 cm
Mezarako musika-konposizioak. Kredo hasiera ments du. Sanctusa zirriborroa da.
7. ABA-RMA-014-0029-000
1888-03-31
Regina Coeli
4 orr. ; 21 x 31 cm
Salamancan egindako piano, organo, baxu eta tenor-ahotsetarako musika-konposizioa.

8. ABA-RMA-002-0004-001
1894-04-30
Misa de Requiem á 3 voces de hombre y órgano á Harmonium obligado
1-62 orr. ; 30 x 22 cm
“Colección de Misas” bildumaren barruan, bukatu gabeko musika-konposizioa.
9. ABA-RMA-002-0004-002
1894-1901
Letrillas escritas por Santa Teresa de Jesús
63-68 orr. ; 30 x 22 cm
Santa Teresa Jesusenaren “Vivo sin vivir en mi” testuan oinarritutako organo eta ahotsetarako musika-konposizioa.
10. ABA-RMA-002-0004-003
1894-1901
Ave María
69-70 orr. ; 30 x 22 cm
Soprano-ahotsetarako musika-konposizioa. Ez da “Euzkerazko ereziak”en argiraratutakoa.
11. ABA-RMA-002-0003-006
1894-1919
Aralarren
71. orr. ; 30 x 22 cm
San Migel Goiangeruaren ohorezko musika-konposizioa.
12. ABA-RMA-015-0001-000
1895-1900
Ave Maris Stella
12 orr. ; 35 x 27 cm
Orkestrarako musika-konposizioa.
13. ABA-RMA-015-0002-000
1895
Begoñako Andra Mariari. Ave Maris Stella euskeraz da latiñez
8 orr. ; 34 x 26 cm
Eusebio Maria Azkuek euskaratutako olerkian oinarritura, organo eta ahotsetarako musika-konposizioa *Euskerazko ereziak : elizarakoak*. – [Bilbo : Euskalzalen moldagintzan], [1897 eta 1899 bitartean] ; *Euskalzale*, 1897, 262-263 orr.
14. ABA-RMA-015-0003-000
1895-07-07
Begoñako Andra Maridsari [sic]
8 orr. ; 34 x 26 cm
Eusebio Maria Azkuek euskaratutako olerkian oinarritura, organo eta kantu-rako musika-konposizioa. “Begoñako Andra Mariari” konposizioaren aldaera.

15. ABA-RMA-015-0011-000
1895-1900
Venid y vamos todos
3-6 orr. ; 33 x 25 cm
Maiatzeko loreetarako orkestrarako musika-konposizio ez-osoak.
16. ABA-RMA-014-0023-000
1896
Markiñako Karmengo Andra Mariari agurra. Andra Mariari maiatzeko loretan
3, 1 orr. ; 22 x 32 cm
Andre Mariaren ohorezko koru eta organorako musika-konposizioak.
“Maiatzeko loretan” zirriborroa da. Musika terminologia euskaraz: “Barratz=lento; erriak; organorakoa; goikoa; erdikoa; berengoa; organo-laguntasun barik erezi leike”.
17. ABA-RMA-014-0002-000
1897-1899
Ave María
3 orr. ; 21 x 31 cm
Tenor-ahotserako musika-konposizioa, Francisco Abaituari eskainia.
18. ABA-RMA-014-0003-000
1897-1899
Ave María
2 orr. ; 31 x 21 cm
Tiple eta soprano-ahotserako musika-konposizioaren bi aldaera.
19. ABA-RMA-014-0030-000
1898
[Eresiak]
34 orr. ; 22 x 32 cm
Musika-konposizioak eta kanta folkloriko harmonizatuak: “Santo Dios” ;
“Beneditus” ; “Ave María” ; “Ergo sum panis” ; “Salve” ; “Ai ori begi ederra” ;
“Eguberrieta (Birjiña maite)”.
20. ABA-RMA-008-0050-002
1898-1919
Salve Mater. Pro Summo Pontifice
3 orr. ; 27 x 18 cm
Testu erlijiosoetan oinarritutako musika-konposizioa.
21. ABA-RMA-014-0025-000
1899
Mendi gainetik. Esnatu dira
2 orr. ; 31 x 22 cm
Maiatzeko Loreetarako musika-konposizioak, Txomin Agirreren hitzekin
Euskalzale, 1899. – 160 orr., 166-167 orr.

22. ABA-RMA-014-0032-000

1899-06-30

Tantum Ergo

3 orr. ; 22 x 31 cm

Organo, baxu eta tenor-ahotsetarako musika-konposizioa *Euskalzale*, 1898,

307-309 orr. ; *Tantum ergo: (canto muzárabe) : para órgano o harmonium . –*

Bilbao : Imprenta y Encuadernación de Euskalzale, 1898.

23. ABA-RMA-014-0017-000

1900-1940

Himno de los guardias de honor de María

5 orr. ; 31 x 22 cm

Korurako musika-konposizioa.

24. ABA-RMA-014-0018-000

1900-1940

Jesusen Biotzari

8 or. ; 11 x 16 cm

Baxu eta tenor-ahotsetarako musika-konposizioa.

25. ABA-RMA-014-0021-000

1900-1940

Maitines de Viernes Santo

4 orr. ; 32 x 22 cm

Kantu laurako musika-konposizioa.

26. ABA-RMA-014-0022-000

1900-1940

Maitines de Sábado Santo

3 orr. ; 18 x 27 cm

Kantu laurako musika-konposizioa.

27. ABA-RMA-014-0027-000

1900-1940

O cor voluptas coelitum

2 orr. ; 31 x 22 cm

Organo eta ahotserako musika-konposizioa Jesusen bihotzari.

28. ABA-RMA-014-0037-000

1900-1940

Ave María. O cor voluptas coelitum

2 orr. ; 16 x 22 cm

Korurako musika-konposizioak.

29. ABA-RMA-014-0028-000

1900-1940

O salutaris

3 orr. ; 22 x 32 cm ; 3 orr. ; 34 x 26 cm

Organo eta gizon-ahotsetarako musika-konposizioaren bi aldaera.

30. ABA-RMA-014-0031-000
1900-1940
Sube al empireo, Virgen Santa
2 orr. ; 31 x 21 cm
Tiple-ahotserako musika-konposizio bukatugabea.
31. ABA-RMA-015-0010-000
1900-1940
Las siete palabras
4 orr. ; 31 x 25 cm
Aste Santurako musika-konposizioa.
32. ABA-RMA-016-0004-000
1900-1940
Ofrezcamos a María
1 or. ; 31 x 21 cm
Andre Mariaren ohorez, tiple ahotserako musika-konposizio ez-osoia.
33. ABA-RMA-016-0005-000
1900-1940
Tu amor quiero
1 or. ; 21 x 31 cm
Andre Mariaren ohorez, ahotsetarako musika-konposizio ez-osoia.
34. ABA-RMA-015-0008-000
1900-08-31
O gloriosa Virginum. Himno a la Ssma. Virgen... Compuesto para la Coronación de Ntra. Sra. De Begoña
4 orr. ; 31 x 23 cm
Begoñako Andra Mariaren ohorezko musika-konposizioa, organo, orkestra eta ahotsetarako Begoña-ko Andra Mariari / Ramón de la Sota adiskideari zuzenduriko zortzi oiu . – Bilbo-n : Amorrottu, Kortina ta Lagunen moldagintzan, 1900.
35. ABA-RMA-015-0009-000
1900-08-31
O gloriosa Virginum. Himno a la Ssma. Virgen... Compuesto para la Coronación de Ntra. Sra. De Begoña
1 or. ; 31 x 23 cm
Begoñako Andra Mariaren ohorezko musika-konposizioaren bertsio ez-osoia, organo, orkestra eta ahotsetarako.
36. ABA-RMA-002-0004-006
1901-06-01
Jesusen Biotzari
77-93 orr. ; 30 x 22 cm
Jesusen Bihotzaren ohorezko 4 musika-konposizio : “Asierako oiuak” ; “Rosario del Corazón de Jesús” ; “Coro para terminar las funciones del Sagrado Corazón” ; “Litania Nova SS.Cordis Jesu” *Litania SS. Cordis Jesu* : organo comitante *tribus vocibus inaequalibus concinanda* . – Bilbao : Typis “Euskalzale”, 1899.



Azkueren lehengotariko konposizioa. Iturria: Euskaltzaindia ABA-RMA-014

37. ABA-RMA-002-0004-007

1901-06-30

Para una peregrinación carranzana

94-95 orr. ; 30 x 22 cm

Andre Mariaren ohorezko musika-konposizioak Karrantzako erromesaldi baterako: "Reina del cielo" ; "Dios te Salve Maria".

38. ABA-RMA-002-0004-009

1901-08-09

Domine Jesu Christe. Oración por difuntos

97-99 orr. ; 30 x 22 cm

Pierre Broussainen alaba Mariaren hiletetarako Hazparnen egindako musika-konposizioa.

39. ABA-RMA-014-0015-000

1901-08-09

Domine Jesu Christe. Ofertorio de la Misa de Requiem

4 orr. ; 37 x 27 cm

Maria Broussainen hiletetarako Hazparnen egindako musika-konposizioa, Broussain senar-emazteei eskainia.

40. ABA-RMA-002-0004-010
1902-03-30
Tantum Ergo
100-106 orr. ; 30 x 22 cm.
Tiplen korua eta harmonium, tiplen duoa eta harmonium, eta hiru ahots eta organorako harmonizatutako musika-konposizioak.
41. ABA-RMA-002-0004-011
1902-05-31
Recordare
107-108 orr. ; 30 x 22 cm
Andre Mariaren ohorez, tiplen korua eta organorako musika-konposizioa latinez.
42. ABA-RMA-002-0004-012
1902-05-31
Lauda Sion
109-121 orr. ; 30 x 22 cm
Organo eta bost ahotsetarako musika-konposizioa.
43. ABA-RMA-015-0006-000
1902-1915
Lauda Sion
36 orr. ; 36 x 29 cm
Organo eta ahotsetarako musika-konposizioa, aurrekoaren kopia.
44. ABA-RMA-002-0004-013
1902-1903
O arima erostariak
121-123 orr. ; 30 x 22 cm
Errukizko musika-konposizioa.
45. ABA-RMA-002-0004-014
1903-07-26
Himnos al Sagrado Corazón de Jesús
123-126 orr. ; 30 x 22 cm
Jesusen Bihotzaren ohorezko organo eta gizonen hiru ahotsetarako musika-konposizioak, Juan Luis eta Gervasio ikasle Karmeldarrei eskainia.
46. ABA-RMA-002-0004-016
1903-11-30
Kyrie. Vivat Jesus
131-134 orr. ; 30 x 22 cm
Organo eta korurako musika-konposizioak.
47. ABA-RMA-015-0004-000
1906
Elorriori
3 orr. ; 23 x 32 cm
Valentin Berrio-Otxoaren ohorezko, organo, korua eta tenor-ahotserako musika-konposizioa.

48. ABA-RMA-016-0007-001
1907-1908
Sub tuum presidium
1 or. ; 32 x 24 cm
Kolonian egindako orkestra, koru eta organorako musika-konposizioa.
49. ABA-RMA-016-0007-005
1907
Daniel
22-56 orr. ; 32 x 24 cm
Kolonian konposatutako oratorioa.
50. ABA-RMA-016-0010-000
1907
Daniel
14 orr.; 20 x 13 cm
Kolonian egindako oratorioaren testua.
51. ABA-RMA-014-0001-000
1907-10-31
Ave Maria
7 orr. ; 26 x 16 cm
Kolonian egindako ahotsetarako musika-konposizioa, Nicolás Cortés Manterolari eskainia.
52. ABA-RMA-014-0004-000
1907-12-31
Benedictus
17 orr. ; 25 x 17 cm
Sei ahotsetarako musika-konposizioa.
53. ABA-RMA-016-0007-006
1907-10-31
Piezas bosquejadas
1-4 orr. ; 32 x 24 cm
Kolonian zirriborrotutako sonatak.
54. ABA-RMA-016-0007-003
1908-02-28
Andante religioso
5-6 orr. ; 32 x 24 cm
Kolonian egindako organo eta biolinerako musika-konposizioa.
55. ABA-RMA-007-0028-002
1909-1915
Lauda Sion
8-24 orr. ; 34 x 26 cm
Tenor-ahotsetarako musika-konposizioa Jose Maria Arroita Jauregiri eskainia.

56. ABA-RMA-007-0028-003
1909-1915
Himno de los guardias de honor de María
26-31 orr. ; 34 x 26 cm
Organo eta korurako musika-konposizioa.
57. ABA-RMA-007-0028-004
1909-1915
[**Konposizio erlijiosoak**]
1-33 orr. ; 34 x 26 cm
Musika-konposizioak, batzuk Kolonian eta Jerusalemen datatuak: "Zuri, Jauna, zor dizut" ; "Goizotoitza" ; "Arratsotoitza" ; "Vivat Jesus. Del Beato Valentin" ; "Meditación sin preludios" ; "Joana d'Arc dohatsuari" ; "Deus meus, Deus meus ut quid de reliquisti me. Compuesta en Jerusalém" ; "Amemos a la Iglesia" ; "Tsalopin tsalo" ; "Primeras notas de Osagarri bat" ; Verbum superum" ; "Misterios del Santísimo Rosario".
58. ABA-RMA-014-0035-000
1909-1915
Vivat Jesus
4 orr. ; 27 x 18 cm
Musika-konposizioaren zirriborroa.
59. ABA-RMA-014-0036-000
1909-06-05
Zuri, Jauna, zor dizut
2 orr. ; 34 x 26 cm
Kolonian egindako organorako musika-konposizioa, Ramon Galbarriaturi eskainia.
60. ABA-RMA-014-0014-000
1911-05-24
Deus meus, Deus meus ¿ut quid dereliquisti me?
2 orr. ; 36 x 27 cm
Jerusalem egindako organorako musika-konposizioa.
61. ABA-RMA-014-0024-000
1912
Meditación
3 orr. ; 31 x 21 cm
Jatorri ezezaguneko organorako musika-konposizioaren fotokopia.
62. ABA-RMA-015-0005-000
1916-09-14
Himno a Nª Sª del Rosario. Viva María. Misterios del Sº Rosario
10 orr. ; 33 x 23 cm
Organo eta ahotsetarako musika-konposizioak. Ondokoei eskainiak: Bilboko Jainko Semearen Gizakundeko monastegiko mojei eta Lekeitioko moja Dominikei.

63. ABA-RMA-014-0019-000
1931
Lekeitioko Andra Mariari
4 orr. ; 31 x 22 cm
Andre Mariaren ohorezko kantu eta organorako musika-konposizioa *Lekeitioko Andra Mariari*. – Lekeitio : R. M. A.k, 1931.
64. ABA-RMA-013-0011-001
1935-12-11
Apaiz-larunbaterako otoitza. Oración para sábado sacerdotal
3 orr. ; 36 x 26 cm
Organo eta ahotsetarako musika-konposizioaren zirriborroa.
65. ABA-RMA-013-0011-002
1935-12-11
Apaiz-larunbaterako otoitz abestua. Oración cantada para Sábado Sacerdotal
3 orr. ; 36 x 26 cm
Korurako musika-konposizioaren bi eskuzko kopiak.
66. ABA-RMA-013-0011-003
1935-12-11
Apaiz-larunbaterako otoitza. Oración para sábado sacerdotal
4 orr. ; 36 x 26 cm
Organo eta ahotsetarako musika-konposizioa.
67. ABA-RMA-013-0011-004
1935-12-11
Apaiz-ostegunerako otoitz abestua. Oración cantada para jueves sacerdotal
3 orr. ; 23 x 33 cm
Korurako musika-konposizioa. “Apaiz-larunbaterako otoitz abestua”ren aldaera.
68. ABA-RMA-013-0011-005
1935-12-11
Variante del Himno de Sábado Sacerdotal
2 orr. ; 36 x 26 cm
Organurako musika-konposizioa.
69. ABA-RMA-013-0011-006
1935-12-11
Variante del Himno de jueves sacerdotal
3 orr. ; 36 x 26 cm
Korurako musika-konposizioa.
70. ABA-RMA-013-0011-007
1935-12-11
Apaiz-larunbaterako otoitz abestua. Oración cantada para el sábado sacerdotal
7 orr. ; 36 x 26 cm
Ahotsetarako musika-konposizioa.

71. ABA-RMA-014-0011-000

1938-1939

[*Musika-konposizionen zirriborroak*]

1 orr. ; 22 x 32 cm

Hainbat kantu-erlijiosoen hasiera eta bukaera: "Salve popular", "Cantemos al amor", "Pange lingua", "Tantum ergo".

72. ABA-RMA-002-0004-025

1938

Hoy nace Cristo

171-173 orr. ; 30 x 22 cm

Gabonetako herri kantetan oinarritutako musika-konposizioa.

73. ABA-RMA-014-0033-000

1938-1940

Tantum ergo para niños

1 or. ; 18 x 27 cm

Organo, tiple eta kontralto-ahotsetarako musika-konposizioa.


74. ABA-RMA-016-0003-000

1938-1940

Gloria gloria a la excelsa Maria

1 or. ; 22 x 31 cm

Andre Mariaren ohorezko musika-konposizioa.



1935.eko konposizioa, hainbat aldaera izan zituena. Iturria: Euskaltzaindia
ABA-RMA-013

75. ABA-RMA-002-0004-027
1938-04-20
Canciones para el mes de mayo. No cesará mi lengua. Dulcísima Virgen
174-177 orr. ; 30 x 22 cm
Andre Mariaren ohorez korurako musika-konposizioak.
76. ABA-RMA-014-0007-000
1938-1939
Colección de cantos religiosos
26 orr. ; neurri askotakoak
“Colección de cantos religiosos” bilduman jasotzen diren 13 musika-konposizion lehen idazkera.
77. ABA-RMA-014-0008-000
1938-1939
Colección de cantos religiosos
74, 2 orr. ; 20 x 29 cm
“Colección de cantos religiosos” aurkibidearen arabera ordenatutako musika-konposizioak.
78. ABA-RMA-014-0009-000
1938-1939
Cantos para niños de catequesis
45-52 orr. ; 20 x 27 cm
Salvador Lertxundiren hitzetan oinarritutako hiru musika-konposizio.
79. ABA-RMA-014-0034-000
1938-09-30
Te Deum
13 orr. ; 20 x 29 cm ; 11 orr. ; 32 x 22 cm ; 6 orr. ; 22 x 31 cm
Organo eta gizon-ahotsetarako musika-konposizioa, eta ahotsetarako partituren bi kopia.
80. ABA-RMA-014-0010-000
1939-08-31
Para el mes del Rosario
45-46 orr. ; 20 x 27 cm
Erosario hilerako musika-konposizioa: “Cantemos con devoción”.

2. MUSIKA PROFANOA

81. ABA-RMA-016-0002-000
1888-1890
Viva Vasconia
1 or. ; 22 x 31 cm
Euskaldun Biltokirako konposatutako zartzuela ez-osoa.

82. ABA-RMA-029-0014-000
1894-1895
[*Musika-konposizio ez-osoa*]
2 orr. ; 31 x 22 cm
Hernaniar bati eskainitako konposizioaren bukaera.
83. ABA-RMA-016-0009-001
1895
Vizcaytik Bizkaira. Zarzuela bascongada en 3 actos
2, 82 orr. ; 22 x 16 cm
Hiru ekitaldietako zartzuelaren libretoa, “Atzenengo agerraldidisa” [sic] ia osorik ments duela *Vizcaytik Bizkaira* [libreto]. – Bilbon : Astuitar J.-n moldagintzan, 1895.
84. ABA-RMA-016-0009-002
1895
Vizcaytik Bizkaira. Zarzuela bascongada en 3 actos
8, 9, 9, 7, 8, 7, 8 orr. ; 22 x 16 cm
Hiru ekitaldietako zartzuelaren musika harizko kintetorako *Vizcaytik Bizkaira : zarzuela euskaldun en 3 actos*. – Bilbao : L. E. Dotesio, [1897?].
85. ABA-RMA-016-0009-003
1895
Vizcaytik Bizkaira. Zarzuela bascongada en 3 actos
6 orr. ; 31 x 22 cm
Zartzuelaren hirugarren ekitaldiko “Canción del pescador” delakoaren musika biolin eta biolontxelorako.
86. ABA-RMA-029-0013-000
1895-1920
[*Musika-konposizio ez-osoa*]
8 orr. ; 34 x 26 cm
Identifikatu gabeko konposizio baten sarrera, orkestrarako egokitua.
87. ABA-RMA-003-0006-002
1896-1897
[*Euskerazko ereziak: gizarterakoak*]
39-63 orr. ; 30 x 22 cm
Musika-konposizioak eta hitzak, batzuk argitaragabeak: “Aiko emen dago” ; “Andra Mariari” ; “Alkar bat egiñez” ; “Mariaren semeak” ; “Katalintxori” ; “Txalopin txalo” ; “Orriak airez aire = Gabon erezi zaar bat” ; “Bazki onek = Pasa de chimbos” ; “Nik banitun” ; “Aloñako artzaia” ; “Goizaldeko loa” *Euskerazko ereziak : gizarterakoak*. – [Bilbo] : Euskalzalen Moldagintzan, [1897 eta 1899 bitartean].
88. ABA-RMA-016-0008-000
1897
Eguzkia nora. Zarzuela en dos actos
20, 10, 13, 10, 12, 14, 11, 11 orr. ; 31 x 23 cm.

Euskaldun Biltokirako konposatua, "Obertura. Cancion del Sereno. Barrinkel. Aingeru batek. Katalintxori. Rrau, rrau, rrau. Peru ta Txomin" ekitaldien musika, harizko kintetoa, ahots eta pianorako *Eguzkia nora...* : zarzuela [bilingüe] en dos actos.- Bilbao : Euskalzalen moldagintzan, 1896.

89. ABA-RMA-013-0008-000

1898-1900

Katalintxo

4 orr. ; 31 x 22 cm

Tenor-ahotserako zortzikoa Luis Samperiori eskainia *Katalintso / Abbadie Jaunaren Andre alargunari zuzenduriko zortzikoa* . – Bilbon : Amorrotu, Cortina ta Lagunen moldagintzan, 1900.

90. ABA-RMA-017-0002-000

1899-1900

Lamindano. Lema de la leyenda lírica Anboto

4, 70, 2 orr. ; 37 x 30 cm

Karmelo Etxegarairen testuan oinarritutako poema sinfonikoa, orkestra eta ahotsetarako. Ondoren konposizio hau "Andra Urraka" tituluarekin landu zuen.

91. ABA-RMA-014-0020-000

1900-1940

Lenbiziko izarra. La primera estrella

2, 4 orr. ; 35 x 27 cm

Biolin eta tenor-ahotserako musika-konposizioaren bi aldaera, musika eta hitzekin.

92. ABA-RMA-016-0006-000

1900-1940

Musika-konposizio ez-osoak

5 orr. ; neurri askotakoak

Identifikatu gabeko musika-konposizio osatugabeak.

93. ABA-RMA-001-0001-001

1902

Auski [sic]

1-6 orr. ; 26 x 18 cm

"Ahuski" tituluarekin argitaratutako piano eta tenor-ahotserako musika-konposizioa *Ahuski: mélodie pour ténor avec accompagnement de piano / composée... sur la poésie de Jean Deuzèle et dédiée à son ami Rafael Picavea.* – Bilbao : Dotésio, [1902].

94. ABA-RMA-001-0001-002

1902

El zortziko de D. Gervasio

7-8 orr. ; 26 x 18 cm

Pianorako musika-konposizioa.

95. ABA-RMA-001-0001-003
1902
Ilargia
9-10 orr. ; 26 x 18 cm
Bukatu gabeko piano eta tenor-ahotserako musika-konposizioa.
96. ABA-RMA-002-0004-015
1903-11-23
La cuna vacía
127-130 orr.; 30 x 22 cm
Jose Selgas-en olerkian oinarritutako piano eta ahotsetarako musika-konposizioa. Ik. g. 1930eko aldaera.
97. ABA-RMA-002-0004-017
1905-04-11
Zortziko [¿de salón?]
135-137 orr. ; 30 x 22 cm
Toursen egindako musika-konposizioa Bilboko Filarmonikakoei eskainia
Nostalgia : zortziko . – Madrid ; Bilbao : Casa-Dotésio, cop. 1910.
98. ABA-RMA-015-0007-001
1905-04-11
Nostalgia
2 orr. ; 34 x 26 cm
Toursen egindako pianorako musika-konposizioa, Bilboko Jainko Semearen Giza-kundearen Monasterioko mojei eskainia. Beste dokumentuetan “Zortziko” titulu darama *Nostalgia : zortziko* . – Madrid ; Bilbao : Casa-Dotésio, cop. 1910.
99. ABA-RMA-015-0007-002
1905-04-11
Zortziko
3 orr. ; 31 x 22 cm
Toursen egindako pianorako musika-konposizioa. Beste dokumentuetan “Nostalgia” titulu darama *Nostalgia : zortziko* . – Madrid ; Bilbao : Casa-Dotésio, cop. 1910.
100. ABA-RMA-015-0007-003
1905-04-14
Zortziko
4 orr. ; 31 x 23 cm
Toursen egindako pianorako musika-konposizioa, Santa Azkue Gorostizaga eskainia. Beste dokumentuetan “Nostalgia” titulu darama *Nostalgia : zortziko* . – Madrid ; Bilbao : Casa-Dotésio, cop. 1910.
101. ABA-RMA-002-0004-021
1905-06-16
Melodía para piano
142-143 orr. ; 30 x 22 cm
Toursen egindako pianorako musika-konposizioa Piedad Berreteagari eskainia.

102. ABA-RMA-016-0007-004
1908-03-31
Der Ritter
7-21 orr. ; 32 x 24 cm
Kolonian egindako klabezinerako balada.
103. ABA-RMA-019-0001-000
1909-1910
Ortzuri
65-96 orr. ; 35 x 27 cm
Operaren hirugarren ataleko bigarren agerraldiaren lehen idatzaldi ezosoa.
104. ABA-RMA-019-0003-000
1909-1910
Ortzuri. R.M. Azkue beretarrak iru ataletan ta euskeraz egindako opera ta neure adiskide maite Urquijo-Ibarra anayai opetsia
123 orriekako argk. ; 19 x 15 cm
Operako eskuizkribuaren argazkia, Urkixo-Ibarra anaiei eskainia. Alemanierazko itzulpena Isidoro Alkortarena da *Ortzuri*. – Mâcon : Protat Frères, [1910].
105. ABA-RMA-019-0002-000
1909-1925
Ortzuri
114 orr. ; 35 x 26 cm
Operaren lehen atala, orkestrarako egokitua. Orkestrazioaren egile Josep Barberà izan daiteke.
106. ABA-RMA-019-0004-000
1909-1925
Ortzuri
46 or. ; neurri askotakoak
